

Artxiboak

Kulturaren Euskal Planaren Artxiboen taldearen
bileretan oinarritutako txostena

2003ko Urria

1. SARRERA: DIAGNOSTIKOA	3
2. AMIA ANALISIA	3
INDARRAK	4
AHULEZIAK	5
MEHATXUAK	7
AUKERAK	7
3. JARDUERA-ILDOAK	8
LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK	10

1. SARRERA: DIAGNOSTIKOA

Euskal Autonomia Erkidegoan artxiboak egiteko tradizio handia dago; horrenbestez, fondoak kontserbatzea, tratatzea eta horiek hedatzea oso garrantzitsua da EAEko artxibo-ondarea babesteko eta balioa emateko. Ildo horretan, badirudi administrazio publikoek artxibo-zerbitzuei bultzada handia eman arren, oraindik ere gabezia handiak daudela.

Orain arteko artxiboen artean –publikoak zein pribatuak– izan den deskoordinazioa dela eta, nahitaezkoa da artxibo horien jarduerak koordinatuko dituen eta horien guztien arazoei erantzungo dien zerbitzu publiko bat izatea. Artxiboen Euskal Zerbitzu hori artxiboen arteko lankidetzaren ondorioz sortu behar da, eta Artxiboen Sistema Nazionala gainbegiratzeko eta garatzeko superegitura bat sortuko da.

Kontuan izan behar da artxibo pribatuak biltzeari eta kontserbatzeari dagokionez, gabezia eta hutsune handiak daudela EAEn, eta, ondorioz, erakunde pribatuen memoria historikoko elementuak galtzen dira, adibidez, garrantzi historiko eta tradizio handieneko enpresenak, alderdi politikoenak eta beste zenbait erakundeenak. Halaber, ez dago tradizio dokumentalaren ikuspegi orokorrik; aitzitik, erakundeetako artxiboak bakoitza bere aldetik ibili ohi dira eta oso ikuspegi lokalak izaten dituzte.

Artxiboen kultur zerbitzuak eta kontserbazio-zerbitzuak hobetzeko, artxibo-sistemetan jarduten duten langileen trebakuntzan garatu beharreko jarduerak funtsezkoak direla onartu da. Hori dela eta, oinarrizkoa da kualifikazio tekniko gehiagoz hornitzea eta denbora gehiago ematea, katalogo dokumentalaren kudeaketa administratiboko lanetan bakarrik aritu ez daitezen.

2. AMIA ANALISIA

INDARRAK

- Digitalizatu eta sarean jarri diren ondarezko datu-baseek (adib. BADATOR), hedapen-esparru globala izateaz gain, herritarrak gure ondareaz demokratikoki eta unibertsalki balia daitezzen bermatzen dute.
- Artxibo asko sortu izan dira Euskadin XV. mendearen hasieratik.
- Historiaren ikerketan iraultza handia izan da erakunde publikoetan egindako ahalegin handiei esker:
 - BADATOR datu-basea: horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko oinarritzko iturriak antolatu, deskribatu eta eguneratu dira.
 - IRARGIk gauzatutako 'ekintza-plana': erabiltzailearentzat erabilgarri zeuden artxibo-inbentario zaharrak berreskuratzeko eta estandarizatzeko/mekanizatzeko lanetan eta errentagarritasun-irizpideen araberako deskribapenean oinarrituta dago. Hori guztia antolatu gabeko artxibo-fondoen deskribapen-politika zorrotz bati jarraiki.
 - Ondare Dokumental Pribatua Berreskuratzea, XVI. mendetik XX.era Euskal Autonomia Erkidegoko 'Populazioaren errolda historikoaren' indexazioaren eta digitalizazioaren bidez.
- Administrazioek bultzada handia eman diete artxibo-zerbitzuen oinarritzko hiru funtzioei: kontserbazioa, fondoen tratamendua eta hedapena.
- Artxiboen kontserbazioa finkatzea eta barne-zerbitzua hobetzeko eta modernizatzeko ahaleginak egitea –horretarako, segurtasun-neurri egokiz hornitutako instalazio berriak erabili dira–.
- Erakundeek IKTen alde egin dute, artxiboetako dokumentuez baliatzeko aukera gehiago ematen baitute.
- Askok aurreratu da tratamendu teknikoaren modernizazioari dagokionez. Ere horretan egindako inbertsioek ere herritarrentzako zerbitzua hobetzeko prozesu orokorra gauzatzeko balio dute.

AHULEZIAK

- Gizarte zibilak ez du artxiboak kontserbatzeko eta horiez baliatzeko interes handirik.
- Udaletan ez da zerbitzu bera eskaintzen; alde handia dago batetik bestera, udalaren tamainaren eta erabil ditzakeen baliabideen arabera.
- Alde handia dago artxibo-zerbitzuen oinarrizko hiru funtzioen artean (kontserbazioa, fondoaren tratamendua eta hedapena). Artxiboen tratamendu teknikoaren modernizazioa eta kontserbazioa gauzatu dira, baina hedapen-eskaintza dibertsifikatzeko ekintzei ekin behar zaie, oraindik. Hedapen-eskaintzari dagokionez, hausnarketa-prozesu bat hasi da herritarrei eman beharreko zerbitzuak nolakoa izan behar duen, eta, ondorioz, artxibo-zerbitzua zerbitzu espezializatuak eskaintzen dituen agente kultural aktibo eta familiar bilakatzeko.
- Oso eremu garrantzitsuetan ez dago nahikoa kultur azpiegitura komunik, batez ere, memoria zaintzeari eta etorkizuneko belaunaldiei transmititzeari dagokionez. Ez da egin bizikidetzako eta gizarte-kohesioko kultur laborategiak sortzeko apustu serio eta jarraiturik.
- Udaletako artxibo-zerbitzuetan aritzen diren profesionalak bakarrik edo ia isolaturik aurkitzen dira, artxibo biziaren eguneroko kudeaketa-lanez gainezka, eta ez dute kultur eta hezkuntza-funtziorik garatzeko batere aukerarik –gero eta gehiago eskatzen dute hori herritarrek–. Bestalde, profesional horiek artxiboen funtzio kulturala landu beharrean funtzio administratiboan aritzen dira batez ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoan sektore pribatua eta politikoa oso garrantzitsuak izan arren, ez dago artxiboak kontserbatzeko eta hedatzeko erreferentziazko tokirik. Artxibo pribatuak biltzeari, kontserbatzeari eta hedatzeari dagokionez, hutsune argi bat dago: ez dago enpresa-artxiborik, artxiboen sistema ez da komunikabideen eta hedabideen (prentsa, irratia, telebista) esparruan sartu, ezta sormenaren esparruan ere.

- Artxiboen hedapena areagotzeko jardueren egungo joera kontuan hartuta, artxiboak zuzentzen dituzten profesionalek gabezia handia dute trebakuntza espezifikuari dagokionez, eta, gainera, ezin diote denbora gehiago eskaini horri; beraz, ekimen gutxiko eta sormen txikiko etorkizuna ondoriozta daiteke. Gainera, tradizionalak ez diren euskarrietako teknikari aditu gutxi dago; izan ere, dokumentu horien iraupena gero eta laburragoa da.
- Tokiko eta probintziako historia lantzeko ahalegin handiak egin izan badira ere, gabezia handia dago ikuspegi historiko komunari dagokionez. Ez da nahikoa kontzeptualizatzen ez eta gizartean erabiltzen ere artxiboa-memoria-identitatea trinomioa.
- Gaur egungo ekimenekin alderatuta –lokalistegiak dira–, Euskal Autonomia Erkidegoko kulturako jarduera-eremu askotan herrialdearen ikuspegi globaleko ikerketa gabezia dagoela ikusi da.
- Araudia ez da hainbat mailatan betetzen, eta, gainera, ez da batere zehatza eta ez du irizpiderik ematen. Planteamendu orokorregiak egiten dira, eta horiek gero garatu egin behar dira artxiboen esparru guztietan. Hauek dira gabezia garrantzitsuenak: ez zaie aurrekontu handirik eskaintzen ondare dokumentalaren jarduerari, eta tokia, langileak, antolamendu-, kontserbazio-, ebaluazio-irizpideak eta, batez ere, administrazioen arteko lankidetzaren falta dira.
- Artxiboen artean komunikazio falta handia dago, eta, horregatik, baliabideak xahutu eta energia eta sinergiak galtzen dira. Nolanahi ere, ez dago lankidetzan aritzeko joerarik. Eta horrek guztiak artxiboek gaizki funtzionatzea eragiten du.
- Bizkaiko udal-artxiboak eta Arabako asko foru-aldundien ardurapekoak dira –nahiz eta aldundiek horrelako eskumenik ez izan–, eta horrek zaildu egiten du gure artxiboen egungo egoerarekin bat datorren plangintza bat egitea.
- Inflazio dokumentala. Ez dago fondo dokumentalak baloratzeko, hautatzeko eta garbitzeko politikarik. Gero eta dokumentu digital gehiago sortzen dira, eta dokumentazioa hautatzeko, kontserbatzeko eta etorkizunean erabiltzeko aukerak proban jartzen dira.

- Ez dago mezenasgorik, ondare dokumentalari dagokionez.

MEHATXUAK

- Ardurapean duten ondare dokumentalaren deskribapen masiboa egiteko programa bat aurrez diseinatu duten (hori baita dokumentuen kontserbazioa eta erabilera eraginkortasunez bermatzeko modu bakarra) gobernu-erantzukizuneko artxibo-zerbitzuek bakarrik kudeatu ahal izango dute behar bezala jatorrizko dokumentuez baliatzeko aukera, CD-ROMen (edo DVDn) kopiatuta eta Internet bidez hedatuko dituzten zerbitzarien bidez.
- Etengabeko aldaketak gertatzen dira enpresen esparruan (xurgapenak), eta artxiboan etorkizuneko kontserbazioa zailtzen dute.
- Gero eta dokumentu digital gehiago sortzen dira, eta dokumentazioa hautatzeko, kontserbatzeko eta etorkizunean erabiltzeko aukerak proban jartzen dira.
- Irizpideak eta zuzentarauak bateratzeko eta artxibo-politikak berriz definitzeko arazoak daude.
- 'Masiboki' sortzen den dokumentazioaren kontserbazioarekin gertatzen ez den bezala, kualitatiboki garrantzitsuagoa den dokumentazioa, multzokatuta ez dagoena, artxiboetan gorde behar ez den dokumentaziotzat hartzen da.
- Artxibatze-zerbitzuak gutxiengo gisa identifikatzen dira, eta artxibatzaileen lanbidea desagertzeko zorian dago, eredu berriak bilatzen ari baitira.

AUKERAK

- Hedapenaren ikuspegitik, aukera handiak daude Interneti esker.

- Orain arte egindako bideari esker, errazagoa izango da esparru honetan aurrera egitea eta identitate kolektiboa eta gizarte-kohesioa finkatzea.
- Artxiboekiko kezka artxibo pribatuetara (familien, elkarten eta abarren jabegoak) eta, bereziki, elizbarrutiko artxiboetara (parrokietako guztiak biltzen dituzte) zabaldu da.
- Orain arte landutakoari esker, artxibo-mota guztietan, pribatu zein publikoetan, politikak eta irizpideak bateratzeko aukera handiagoa dago.
- Euskadiko Artxibo Nazionala garatzeko aukera.

3. JARDUERA-ILDOAK

1. Politika, koordinazio eta ekimen publikoak.

- Artxibo-sistemen (foru-aldundietakoak, elizbarrutietakoak, pribatuak, udaletakoak eta abarretakoak) jarduerak koordinatuko dituen zerbitzu publikoa sortzea.
- Artxibo-zerbitzuak sortzeko eta/edo mantentzeko laguntza ekonomikoa ematea: langileen trebakuntza, azpiegitura teknikoak, etab.

2. Baliabideak indartzea (trebakuntza, enplegua, lankidetzak, etab.).

- Hainbat artxibotako profesionalen trebakuntza, koordinazioa eta elkarren arteko komunikazioa bultzatzea.

3. Erakundeak, erakunde eragileak eta enpresa-sektorea.

- Eremu pribatuan –enpresak, elkarteak, alderdi politikoak, etab.– artxiboak eta/edo artxibo-zerbitzuak sortu, antolatu eta garatu daitezkeen bultzatzea, memoria historikoa zaintzeko.

4. Produktu-irizpideak eta zeharkako elementuekiko harremana (euskara, kultura, turismoa...)

5. *Balio-katearen eta kudeaketaren alderdiak.*

5.1. Ikerketa eta teknologia berriak

- Ikus-entzunezko artxiboen eta artxibo digitalen ingurukoa zaintzea

5.2. Babesa

5.3. Kontserbatzea eta leheneratzea

- Gizarteari zerbitzu bat eskaini nahi dioten eta ondare dokumentala berreskuratzeko, kontserbatzeko eta hedatzeko sentikortasun handia duten artxibo pribatuei (fundazioak) artxibo-proiektuak gara ditzaten finantziario handiagoa eskaintzea.

5.4. Balorizatzea eta hedatzea

- Artxiboen garrantzia sustatzea: gizarteari, oro har, publizitatea zuzentzea, artxiboen ezaugarrien berri emateko eta herritarrek horien erabileraz (herritarren eskubidea baita) zein gure ondare dokumental guztia (pertsonala, ekimen pribatuak, etab.) kontserbatu beharraz kontzientziatzeko.

5.5. Ondarea kudeatzeko ereduak hobetzea

- Artxiboen mapa egitea: sistemak eta azpisisistemak ezartzea, eta horien arteko loturak eta independentziak finkatzea.
- Artxiboak kudeatzeko gaiak aztertzea: balorizatzea, garbitzea, etab.

6. *Kontsumo kulturala dinamizatzea eta ondarea nazioartekotzea*

LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK

1. Euskadiko Artxiboen Sistema Nazionala finkatzea eta oraingo araudia garatzea:
 - a) Artxiboen errolda eguneratzea
 - b) EKOLen aurreikusitako ondasun-inbentarioa egitea
 - c) Legean aurreikusita dagoen Artxiboen Aholkularitza Kontseilua martxan jartzea
 - d) Araudian aurreikusitako Balorizazio eta Garbiketa Batzordea martxan jartzea.
 - e) Normalizazio deskriptiboa aplikatzea nazioarteko estandarrekin
 - f) Hezkuntza Sailarekin koordinatzea, ikasketa-planei dagozkien irakasgaietan ondare dokumentala sar dadin.
2. Artxibo Historiko Nazionalaren proiektua gauzatzea, memoria kolektiboa zaintzeko eta herrialdeko aldaketen eta bilakaeraren lekuko izan dadin Euskal Autonomia Erkidegoak behar duen azpiegitura espezifikoa lortzeko.
3. "Artxiboen Euskal Sarearen" proiektua garatzea: hainbat artxibo-sistemaz osatutakoa, eta EAEko herritar guztiek artxibo-zerbitzu guztietara kondizio berdinekin sartzeko

aukera izateko modukoa, zeharkako jarduera-ildoak koordinatuko dituen eta artxiboen kultura bultzatuko duena.

4. Memoria Dokumental Digitala garatzea, erabiltzailea Ondarera eta Artxiboetara zuzenean sar dadin. Hori da, finean, artxibo-dokumentazioaren kontserbazio-, tratamendu-, eta hedapen-politikaren azken helburua.